

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIAHERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako haranetako Jatorrizko Moxala marka berria aurkeztu da

Foru Gobernuak, INTIAren bidez, parte hartutako mugaz gaindiko proiektu baten ekimenetako bat da, eta Elizalde kontseilariak gaur eman dio amaiera

Viernes, 18 de septiembre de 2015

Landa Garapeneko, Toki Administrazio eta Ingurumeneko kontseilari Isabel Elizaldek AGRIVAL Pyrénées/Pirinioak mugaz gaindiko proiektuko emaitzen aurkezpen-jardunaldiari amaiera eman dio gaur goizean. Nafarroako Gobernuak parte hartu du bertan, [INTIA](#) enpresa publikoaren bitartez.



Elizalde kontseilaria INTIAko, Jatorrizko Moxala elkarteko ordezkarien eta abeltzain nahiz sukaldarien alboan.

Proiektu horren emaitzetako bat Jatorrizko Moxala elkartearen sorrera izan da; animalia horren bertako arrazen ustiapenetako 420 abeltzain nafar batzen ditu, eta baita Goñi eta Borja harategiak merkaturatzeko enpresak ere. Erakunde horrek [Jatorrizko Moxala marka berria](#) aurkeztu du gaur, ostirala, eta, haren bidez, hazitako moxal-haragiaren ezaugarri osasungarriak sustatu nahi ditu, Nafarroako haranetako abeltzainek ekoiztitakoa.

Marka horren aurkezpenean honako hauek ere parte hartu dute: Elizalde kontseilariak, INTIA enpresa publikoko kudeatzaile Jesús M^a Echeverriak; Jatorrizko Moxala elkarteko lehendakari Andres Goñik; abeltzaintza-sektoreko ordezkari Patxi Legarrak; eta Enrique Martínez Burón sukaldariak.

AGRIVAL proiektua

AGRIVAL

Pyrénées/Pirinioak mugaz gaindiko proiektuan Nafarroako Gobernuak parte hartu du, INTIAren bidez, eta baita ondorengo erakunde frantsesek ere: *Chambre d'Agriculture des Pyrénées Orientales, Chambre d'Agriculture de l'Ariège* y



AGRIVAL proiektuaren itxiera-jardunaldira bertaratutakoak.

Chambre d'Agriculture de l'Aude.

Haren helburua Pirinioen bi aldeetako nekazaritza-elikagaien sektorearen garrantzia agerian jarriko zuten ekimenei laguntzea izan da. Inplikaturako eragileek gune bakoitzean lan egin dute bertako ekoizpen-sistemak eta beren arazoak aztertuz. Horrenbestez, proiektuko bazkideek Pirinioetako ekoizpenak eta haien sektoreak bereizi ahal izan dituzte, bai eta beren funtzionatzeko moduak (teknikoa, ekonomikoa eta antolaketakoa) aztertu eta kapitalizatu ere.

Aldi berean, elkarren arteko mendekotasun-mekanismoak aztertu ahal izan dituzte, protagonisten arteko gatazkak eta erronkak. Aukera estrategikoak ere zehaztu dituzte, esperientzia pilotuak egin eta hainbat aurrerapen alderatu. Gainera, nekazaritza-produktuak bereizi eta balioa emateko estrategien balio erantsiari buruzko erreferentziak eskuratu eta hedatu dituzte dibertsifikaturako baldintza geografiko eta ekoizpen-sistemetan. Gainera, Pirinioetako lurraldeetan finkaturako balio-kate berriak sortzeko ereduak egin dituzte.

AGRIVAL proiektuak sustatutako ekimen nafarren artean, Jatorrizko Moxalaz gain, ekoizpen integratuko txerrikumea dago, euskal txerria, Zangozako potxa, Nafarroako boilurra eta *betizuren* haragia.

Amaiera-jardunaldia

Aipatu denez, gaur goizean AGRIVAL Pyrénées/Pirinioak proiektuaren itxiera-jardunaldia egin da, eta nekazaritza-elikagaien sektoreko 40 profesionalak parte hartu dute bertan. Aurrez, irailaren 15ean, antzeko saio bat egin zen *Villeneuve de la Rahon* (Frantzia).

INTIAko ITG ataleko zuzendari Carlos Santamaríak bertaratutako guztiei ongietorria eman die, eta aurreikusitako programa aurkeztu du. Lehenik eta behin, INTIAko eta *Chambre d'Agriculture des Pyrénées Orientales*ko teknikariek proiektuaren azken balantzea egin dute. Jarraian, Berenguer&Pomareko abokatu Tomás Barber-ek nekazaritza-elikagaien sektoreko kalitatezko figuretarako dagoen lege-babesaz hitz egin du. Horren ondoren, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioko Elikagaiak Sustatzeko zuzendariorde nagusiak nekazaritza-elikagaiak sustatzeko dauden politikak eta jarduerak zehaztu ditu. Azkenik, adierazi den moduan, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilari Isabel Elizaldeek jardunaldiari amaiera eman dio.